LEGE GORDAILUA NAFARROAN

erabiltzeko gida

ZER DA LEGE GORDAILUA?

ZER HELBURU DU?

NORK ESKATU ETA ERATU BEHAR DU?

NOLAKOA DA LEGE GORDAILUAREN ZENBAKIA?

NOIZ ETA NOLA TRAMITATZEN DA?

ZER ARGITALPENEK DARAMATE LEGE GORDAILUA?

LEGERIA

ARAU-HAUSTE ARINAK

ARAU-HAUSTE LARRIAK

CASTELLANO

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ZER DA LEGE GORDAILUA?

Nafarroan editatutako argitalpenen zenbait ale gordailuan utzi behar dira Nafarroako Liburutegian. Betebehar hori da lege gordailua.

ZER HELBURU DU?

Ekoizpen editorial guztiaren kontserbazioa bermatzea du helburu, ulertzen baita ondasun demokratikoa dela, eta haren bidez bermatuko zaiela gaur egungo herritarrei eta datozen belaunaldiei ondare intelektualean sartzeko aukera, informazio eta ikerketa xedeetarako.

Horrenbestez, **kultura kontserbatzeko mekanismoa da.**

NORK ESKATU ETA ERATU BEHAR DU?

Inprimatutako lanen kasuan, **editoreak**.

Dokumentuak entzunezkoak, ikus-entzunezkoak, elektronikoak... direnean, **ekoizleak, kopiagileak edo fabrikatzaileak**.

Egileak berak editatzen badu lana, berak eskatu beharko du lege gordailuaren zenbakia.

Eskatzaileak entregatu beharko ditu eskatutako aleak, edonon inprimatu direla ere.

NOLAKOA DA LEGE GORDAILUAREN ZENBAKIA?

Lege gordailuaren zenbakiak atal hauek ditu:

- **DL** siglak (gaztelaniaz) edo **LG** siglak (euskaraz).
- **NA** siglak, Nafarroari dagozkionak.
- Gordailuaren **eratze zenbakia**.
- Gordailuaren **eratze urtea**, lau zifrarekin eta aurretik marratxoa paratuz.

Adibidea:

DL NA 233-2016 edo LG NA 233-2016

Ikusteko eta identifikatzeko moduko toki batean inprimaturik agertuko da.

LGaren zenbaki bera eramanen dute beti:

- **Liburuki bat baino** gehiago duten lanek.
- **Baliabide jarraituek edo aldizkako argitalpenek** (egunkariak, aldizkariak, jarduera programak, kultura agendak, etab.)

NOIZ ETA NOLA TRAMITATZEN DA?

Eskabide epea

Lana inprimatzen edo ekoizten bukatu baino lehen.

Doako eskabidea

Tramitazioa linean, helbide honetan:

https://depositolegal.navarra.es

Lehenik, alta eskatu behar da editore gisa. Balioztatutakoan, editoreak eskatu ahalko ditu behar dituen LGaren zenbakiak.

Aurrez aurreko tramitazioa:

Herritarrak lineako aplikazioan sar daitezke tramite guztiak egiteko.

Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

Nafarroako Liburutegia
Nafarroako Lege Gordailuaren Bulegoa
Antonio Pérez Goyena pasealekua, 3, 2. solairua
31008 Iruña
848 425 680 – 848 425 683
deplegal@navarra.es

Aleak entregatzea

- Aurrez aurre edo postaz igorrita.
- Lana banatzen edo saltzen hasi baino lehen.
- Gehienez bi hilabeteko epea eskabidearen egunetik.

ZER ARGITALPENEK DARAMATE LEGE GORDAILUA?

Nafarroan ekoizten edo editatzen den edozein argitalpenek, zeinahi prozeduraren bidez ekoizten, editatzen edo hedatzen eta zeinahi bideren bitartez banatzen edo komunikatzen direla ere.

Zalantzarik baduzu, galde iezaguzu.



Argitalpen mota	Entregatu behar diren aleak
• Liburuak eta liburuxkak (lehen argitaraldiak eta berrargitaraldiak) • Aldizkako argitalpenak, aldizkariak, memoriak, urtekariak... • Mapak, planoak, atlasak edo antzekoak • Partiturak • Multimedia baliabideen kasuan, euskarrietako bat gutxienez papera denean	4
• Edizio beraren hainbat azaleztapen • Testuliburuak • Bibliofilo liburuak eta liburu artistikoak • Iragarkietako eta publizitateko afixak • Paisaien eta hirien postalak • Entzunezko dokumentuak (audio CDak, kaseteak) • Ikus-entzunezko dokumentuak (bideoa, bideo-DVDa, Blue Ray) • Euskarri ukigarriko dokumentu elektronikoak (CD-ROM, DVD-ROM…) • Jatorrizko estanpak, edozein teknikaren bidez eginak • Editatutako argazkiak • Mikroformak • Euskarri fisiko ukigarrik gabeko dokumentu elektronikoen artxiboak, ingurune beregainetan deskargatzen ahal direnak	2
• Inprimatutako orriak (funtsean merkataritzako publizitatea ez direnak) • Paisaienak eta hirienak ez diren ilustraziodun postalak • Irudi-orriak, kromoak, kartak eta zoriontzeko txartelak • Zinemagintzako film ororen dokumentu osoen kopia berria, jatorrizko bertsioan, eta dagokien publizitate materialaren ale bat	1

LEGERIA

Estatuko araudi orokorra. Lege gordailua Lege Gordailuari buruzko uztailaren 29ko 23/2011 Legearen bidez arautzen da (2011ko 182. EAO, uztailaren 30ekoa).

Lineako argitalpenen lege gordailua uztailaren 10eko 635/2015 Errege Dekretuaren bidez arautzen da (2015eko 177. EAO, uztailaren 25ekoa).

Nafarroako berariazko araudia. Lege gordailua maiatzaren 29ko 33/2013 Foru Dekretuaren bidez arautzen da (2013ko 110. NAO, ekainaren 11koa).

ARAU-HAUSTE ARINAK

1.000 eta 2.000 euro arteko isunak

- Lan bat argitaratzea eta banatzea lege gordailuaren zenbakia eskatu gabe.
- Lan bat argitaratzea eta banatzea lege gordailuaren zenbaki faltsu edo osatugabe batekin.
- Nahitaezko aleak ez entregatzea.
- Bulegoari ez jakinaraztea edizio bat geroratu edo bertan behera utzi dela.

ARAU-HAUSTE LARRIAK

2.001 eta 30.000 euro arteko isunak

- Arau-hauste arinetan berrerortzea.
- Lege gordailuaren iruzurrezko edo dolozko manipulazioa.
- Lege gordailua eratzerakoan datuak ematera behartuak daudenek datu faltsuak aurkeztea.
- Ikuskatzaileen lana oztopatzea.

Ezarritako zehapenek ez dute salbuesten lege gordailua eratzeko betebeharretik.